

PRENTSA OHARRA: 2025.07.14

Etxepare Euskal Institutuaren unibertsitate programako 27 ikaslek euskara ikasiko dute Zornotzan

- Europa eta Amerikako zazpi herrialdetako ikasleek hartuko dute parte aurtengo barnetegian**
- Bi txanda izango ditu ikastaroak: lehena, uztailaren 14tik 25era; bigarrena, abuztuaren 4tik 15era**

Etxepare Euskal Institutuaren **unibertsitate programaren** baitan euskara eta euskal kultura irakurletzetako 27 ikaslek aurrez aurreko ikastaro trinkoa egingo dute Zornotzako Aurten Bai barnetegian. Etxepare Euskal Institutuak 2012tik eskaintzen ditu euskara ikasteko egonaldiak egiteko bekak.

Barnetegiko egonaldiak bi txandatan burutuko dituzte. Lehendabizikoan, uztailaren 14tik 25era, zazpi ikaslek hartuko dute parte. Etxepare Euskal Institutuko zuzendari Irene Larrazak ikasleak bisitatu ditu astelehenean, uztailak 14. Hiru ikasle Poloniatik etorri dira; eta Bartzelona, Frantzia, Erresuma Batua eta Uruguaitik ikasle bana. Euren euskara mailaren arabera kokatu dituzte ikasgeletan, barnetegian dauden beste ikasle batzuekin batera, A1 eta B2 maila artean. Egonaldiaren helburua euskalduntzearen maila bat aurreratzea da.

Bigarren txanda abuztuaren 4tik 15era egingo da eta nazioarteko 20 ikasle hartuko ditu: Poloniatik sei ikasle; Universitat de Barcelonatik lau; Uruguaitik hiru; Italia, Erresuma Batua eta AEBetik bina ikasle; eta Frantziatik ikasle bakarra.

Euskara ikasteko bekak

Atzerrian euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntza, ikusgarritasuna eta hedapena helburu, Etxepare Euskal Institutua eta Aurten Bai Fundazioaren arteko hitzarmenari esker, Institutuaren nazioarteko unibertsitate sareko ikasleek **Zornotzako Aurten Bai barnetegian** euskara ikasteko egonaldia egiteko aukera dute. Etxepare Euskal Institutuak eta Aurten Bai Fundazioak erdibana bere gain hartzen dute ikastaroaren, ostatuaren eta otorduen kostua, eta ikasle hautatuek aseguru eta bidaia ordaintzen dute.

Etxepare Euskal Institutuak bultzatuta, munduko 35 unibertsitatetan ematen dira euskara eta euskal kulturako klaseak eta 2024. urtean 1.300 ikasletik gora zeuden matrikulatuta euskal ikasketekin loturiko eskoletan.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitze egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzak sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

Info+

Komunikazioa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus